

EUSKARA

1. SARRERA

Hurrengo lerroetan erakusten den lantxoaren helburua irakurlea Aramaioko euskararen zenbait zertzeladaz jabetzea da. Ez du oraingo honek, tamalez, lan zabal eta sakonegia izateko asmorik; gurea Aramaioko euskararen deskribapena da, soilik.

Gaur aurkezten dugun lan honen oinarriak 1990. urteko urtarrilan Aramaioko Etxaguen eta Gantzagako auzoetan egin ziren bi inkesta dira. Euskaltzaindiak Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) gauzatzen dihardu eta Euskal Herri osoko 145 herritan hamaika zinta grabatu ditu. Gu zinta horietaz baliatu izan gara lantxo hau gorpuzteko. Eta uste dut garrantzi handikoa dela hau azpimarratzea, sarri gertatu ohi baita lan bat aurkeztu orduko, saiak kaskira bezala, inoren lepora botatzea hau eta bestea gaizki daudela esanik.

Hemen erakusten dena, bada, inkestagile batek Etxaguen auzoko lekuko bati eta Gantzagako biri 1990.eko urtarrilan jasoa da; besterik ez. Ez noa orain lekukoaren kalitatea zalantzatan jartzen. Erruren bat badago, hori inkestagileari edo transkribatzaileari egotz bekio, maiz, zintak transkribatzerakoan batek hau entzun eta hura jasoa izana ere gertatu dira eta.

Niri dagokidanez, omenaldi honek eman didan aukera aprobetxatuz, Aramaioko egoera soziolinguistikoa aurkeztu, labur-labur, eta EHHArako herri honetan egin ziren grabaketek erakusten dutenaren berri eman nahi izan dut, guztia "Aramaioko euskara" izenburupean bildua.

Sarreratxo hau eta amaierako bibliografia kontuan izan gabe, hiru atal nagusitan banatu dut lana. Lehenean, Aramaioko euskararen egoera demolinguistikoa eta euskara motaren kokapena ditut ardatz; bigarrenean, euskararen ezaugarri fonetiko-fonologiko eta morfologikoen deskribapena, eta hirugarrenean, lexikoa eta testu libreak aurkeztuko ditut.

EHHA-k lexikoa du ardatz eta bertan milaka hitz eta esangura biltzen dira. Kasu askotan, jende gazteak ezagutu ere egiten ez dituen hitzak eta pasarteak bildu dira eta aukerako ikusi dut atal berezi eta luze samarra eskeintzea lexikoa eta etnotestuei, bertan interesgarri iruditu zaizkidan hitzak eta testuak bildu ditudalarik.

2. IKERGAIA: ARAMAIO

2.1. Herria

Aramaio Arabako iparraldean dagoen udalerri menditsua dugu. Bere mugak honako hauek dira: Iparraldean, Arrazola, Axpe eta Abadiño (Bizkaia); Ekialdean, Arrasate eta Eskoriatza (Gipuzkoa); Hegoaldean, Gatzaga eta Legutio, eta Mendebaldean, Legutio eta Otxandio. Arexola, Azkoaga, Baraxuen, Etxaguen, Gantzaga, Ibarra (herriburua), Olaeta, Untzela eta Uribarri dira udalerria osotzen duten auzoak.



Geografia aldetik, Aramaio mendiz inguratua dugula esan behar dugu. Iparraldean, Ipiste (1.157 m.) eta Murugain dira gailurrik aipagarrienak; Arangio aldean, Orisol (1.130 m.), eta Hegoaldean, Jarindo (886 m.). Arangio mendikateko ipar eta eki-ipparraldeko gailurretan sortzen dira Deba eta Ibaizabal ibaietara urak izurtzen dituzten zenbait erreka. Lehenena, Aramaio erreka batipat; bigarrenena, Elorrio erreka. Mendikateko hegoaldean, Zadorrara ura izurtzen duen Urkiola dugu. Ekialdean, azkenik, Albaina erreka eta izen bereko urtegia.

73,84 m²-tako hedaduraz, egungo ekonomi iharduera nagusia nekazaritza eta abeltzantzan oinarritua da. Herritarrek, ordea, inguruko zenbait industri-gune dela medio (Deba garaiko Arrasate eta bere inguruak, batik bat), nekazaritza eta abeltzantza lanak alde batera utzi edo industri lanez tartekatzen hasi dira. Biztanle kopurua ere, pizkanaka-pizkanaka, jeitsiz joan da; honela, 1900.ean, 2.056 biztanle baziren, 1950.ean, 1.896 ziren eta egun 1.342 inguru ditugu. Era berean, herriburuko biztanle kopurua gehitu eta auzoetako jeitsi egin da.

Historia aldetik, Aramaiok beti izan du egoera berezia. XV. mendera arte, Bizkaiko Jaurreriaren menpe izan zen, gizaldi honen ondarretarantz Arabara pasatu zen arte (1489.eko urtarrilaren 9ko eskritura bitartez) Gipuzkoa eta Bizkaiko leinu eta herri burru-

ketatik ihes egiteko. Geroztik, Araban bizi izan da baina honekiko lokarriak ez dira estuegiak izan. Patxi Uribarrenek bere "Aramaiona'ko..." artikuluan dioenez (1972: 158), «Aramaiotarrok, Araba barruan izan arren, beti apartekotzat euki dogu geure burua. Hemen "Arabara joan" esaten dugu, arabarrak ez bagina lez. Ori dala-ta, edo, Arabako erriak euren euskera galdu arren, Aramaiotarrok geurean jarraitu dogu. Bilarle'ko mendi tontorrek gelditu dabe euskeraren atzerakada hori».

Lege aldetik ere, Araban Kastilako legeak nagusituagatik, Aramaion Bizkaiko foruak zuten indarra, aipatu bezala, Aramaio Bizkaira lotua baitzegoen.

2.2. Aramaioko egoera demolinguistikoa

Ataltxo honetako datu gehienak Eusko Jaurlaritzak 1986. urteko Erroldaz baliatuz argitaratutako *Soziolinguistikazko mapa* liburutik (1989) jasoak ditugu, eta hemen erakutsiko ditugunak ez dira Aramaioko egoera demolinguistikoari buruzko zertzela urri eta labur batzu besterik:

⇒ Hizkuntz gaitasuna: euskaldunak/erdaldunak

Biztanle kopurua	Euskaldunak	ia euskaldunak	erdaldunak
1.305	89,33	5,57	5,05

Adin taldeak:

biztanle kopurua	3-17	18-24	25-34	35-44	45-65	> 65
1.305	94,64	84,43	82,47	82,83	92,82	95,22

⇒ Ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez

biztanle kopurua	Euskara bakarrik	Euskara eta gaztela.	Gaztelania
1.342	85,39	1,41	12,66


Adin taldeak:

biztanle kopurua	2-17	18-24	25-34	35-44	45-65	> 65
1.305	79,37	85,0	83,87	82,24	93,15	95,23

⇒ Udalerrien ereduak

Hizkuntz egoera eta baliabideak hobeto ulertzeko eta udalerrien joera nagusiak ager-tarazteko, jarraiko ereduak lantzen dira *Soziolinguistikako mapa* liburuan:

- a) Udalerri erdaldunak
- b) Udalerri euskaldunenak
- c) Berreskurapen biziko udalerriak
- d) Berreskurapen moteleko udalerriak
- e) Galera galgatuko udalerriak
- f) Galera etengabeko udalerriak



b) Udalerri eus-kaldunenak: Eredu honetan, aldagarrien ehunekoa (ama-hiz-kuntza euskara dute-nena ala euskal hitzu-nen ehunekoa) adin-talde guztietan %80-tik gora agertzen da. Alde honetatik, Ara-maio udalerri euskal-dunen artean dugu-la esan behar dugu aldagarri guztietako ehunekoetan baitago %80tik gora.

⇒ KENK indizea

Euskaldunen eta ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, dutenen arteko aldea adie-razten du KENK indizeak. Hizkuntz gaitasunaren (euskaldunaren) eta ama-hizkuntzaren (euskara, bakarrik ala ez) arteko diferentzia aldekoa (+) ala aurkakoa (-) izan daiteke eta, ehunekotan emanda, udalerri bakoitzean euskaldunak ugaritzen ala urritzen ari diren era-kusten digu. Aramaiori dagokion indizea 0,25-2,50 artean dugu, 2,45ean hain zuzen.

⇒ Gal-indarra 1. Ama-hizkuntza euskara bakarrik izanik, gaur egun euskaraz hitz egiteko gaitasuna guztiz galdu dutenen proportzioa (ez dakite euskara hitz egiten).

⇒ Gal-indarra 2. Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania, biak izanik, gaur egun eus-karaz hitz egiteko gaitasuna guztiz galdu dutenen proportzioa.

⇒ Eutsi-indarra. Ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, dutenetatik ehuneko zen-batek hitz egiten duen ongi euskaraz.

⇒ Gara-indarra. Ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, dutenetatik, ehuneko zen-baitek hitz egiten eta idazten duen ongi euskaraz.

Biztanle kopurua	Euskaldunen ehunekoa	KENK indizea	Gal indarra 1	Gal indarra 2	Eutsi indarra	Gara indarra	Ahozko e. i.	Idatz e. i.
1.305	89,33	2,45	0,80	0	99	40-49	23,52	25,88

➔ Ahozko e. i. (ahozko erakar indarra). Ama-hizkuntzaz erdaldun direnetarik, euskaraz ongi hitz egiten duen biztanleen ehunekoa.

➔ Idatz e. i. (idatzizko erakar indarra). Ama-hizkuntzaz erdaldun direnetarik, euskara ongi idazten duten biztanleen ehunekoa.

Zer erakusten dute, baina, datu hauek?

Bat, eta garrantzitsuena, Aramaio herri euskaldunenetako bat dugula (89,33 dira euskaldunak; 5,57 ia euskaldunak). Bi, eta hau ere garrantzitsua, KENK indizearen arabera, euskaldunak ugaritzen ari direla. Hiru, neurri dexente batean, ama-hizkuntzez erdaldun direnak ere euskaraz ongi hitz eta idazten dutela.

Dena den, eta Patxi Uribarrenen aipatu artikulura itzuliz (1972: 164 eta hh.), kalea eta baserri-auzoen arteko alde nabarmena dago eutsi indarrari dagokionez. Gero eta jende gehiago bizi da kalean eta gero eta erdera gehiago entzuten da bertan. Eta, bada ezpada ere, konbenigarri ikusten dut duela hogeit urte esandakoa «*Aramaiona'ko euskerea ez da berez ilgo. Geuk ilgo dogu*» gogoraraztea. Kontuan izan dezagun, bada, geure eskuetan dagoela euskararen etorkizuna eta geuk nahi dugun artean iraungo duela.

2.3. Bonaparteren sailkapena

Euskalkien banaketaren arazoa gehien eta sakonen ikertu duena, zalantzarik gabe, Luis Luziano Bonaparte Printzea izan da, berak eginiko sailkaketaz baliatuko garelarik Aramaio euskara dagokion euskalki eta azpieuskalkian kokatzeko. Bonapartek lau sail-



kapen desberdin egin zituen, eta laugarrena, 1869. urtekoa, izaten dute auzoak dialektologia ikerketa lan guztiek. Honen arabera, bizkaiera litzateke euskararen zortzi euskalkietako bat. Bizkaiera, bestalde, hiru azpieuskalkitan banatzen da:

1. Bizkaiera

1. Ekialdekoa: Markina
2. Mendebaldekoa: Gernika, Bermeo, Gaminiz-Plentzia, Arratia, Orozko, Arrigorriaga, Otxandio
3. Gipuzkoakoa: Bergara (Altzola, Antzuola, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Oñati, Soraluze, Bergara)
Gatzaga (Aramaio, Leintz-Gatzaga, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate)

Bonapartek, lehen sailkapenean, Bergarako euskara Ekialdeko euskalkian kokatu zuen; Gatzagakoa, Mendebaldeko euskalkian. Gainontzekoetan, aipatu berri dugun Gipuzkoako azpieuskalkian. Eta honek zera baizik ez du adierazi nahi, nire ustez, beti ere oso sail gertatzen dela sailkapen zorrotz eta zehatzak egitea, gehienetan euskalkien arteko mugak ez baitaude batere garbi. Luis Baraiazarrak dioenez (1985: 8), *«zenbait kasutan herriak mendi eta haranez elkarrengandik urrunduak egon arren, elkar gurutzaketak, eraginak eta kidetasunak nabari izaten dira; eta alderantziz ere bai: ia auzo batetik bestera ñabardurak eta bereizketak...»*

2.4. Lekukoak

Sarreran aipatu bezala, EHHA-rako grabatutako inkestez baliatu gara gure lanerako eta jarraian aurkeztuko ditugun lekukoak orduan Etxaguen eta Gantzaga auzoetan erabiliak dira.

Lehen lekukoa 1911. urtean Etxaguen auzoko «Ipurtotz» baserrian jaiotako Emeterio Bergaretxe Elortza dugu. Egun 84 urtetako alarguna dugu. Bere gurasoak eta emazte ziranak ere aramaioarrak. Lekuko oso ona gertatu zen eta bere iharduna lexikoari dago-kio, ia bere osotasunean.

Gantzaga auzoko «Urdingio» baserrian bizi dira beste bi lekukoak, senar-emazteak. Senarra, Iñaki Larrañaga, 1915. urtean «Urdingio»n bertan jaioa; gurasoak ere aramaioarrak. Emaztea, Marina Padilla Boveda, 1918. urtean jaioa. Bere aita, bera bezala, aramaioarra; ama, gasteiztarra. Bi lekuko hauek ere oso onak gertatu ziren eta berauen iharduna, lexikoarena ezeze, gainontzeko atalena ere.

Beraientzat nire eskerrik beroenak garai hartako eta eguneango nirekiko harrera beroagatik. Saio hau beraiena ere bada, neurri haundi batean.

3. FONETIKA ETA FONOLOGIA

Fonetika eta fonologiari eskainiko diegun atal honetan erabiliko ditugun adibide askoren transkripzio fonetikoa jaso dugu EHHako koadernoetan. Interesgarri iruditu

zait hemen ere fonetikoki transkribaturik ematea, horretarako EHHA-k hartu zuen alfabeto fonetikoaren erabili dugularik.

3.1. Bokalak

3.1.1. Diptongoak eta hiatoak

→ Diptongoez, esan dezagun, labur-labur baizik ez bada ere, honelako fenomeno fonetiko aipagarriak aurkitu ditugula Aramaion:

— *au* diptongoa normalean itxi egiten da. Guk *eu* jaso dugu: pasau = paseu

— *eu* diptongoa mantendu edo kasuren batean monoptongatu ere egiten da: euleari = uliei jaso dugu, baina mugagabea atera nahi izan dugunean ‘eule’ eman digu.

— *ai*, *ei*, *oi* diptongoak, *i* bigarren elementutzat dutenak hain zuzen, hurrengo konsonantearen bustidura eragiten dute eta galdu egiten dira, gehienetan.

goiz = [góš] aize = [áše] aitz = [áč]

ditugu baina baita

erein = [ér̥i̯n] aittaginarreba = [ait̥é̯]nafeβa
amaginarreba = amái̯nafeβa

— *ui* goranzko diptongoa ere aurkitu dugu: eskumutur = [eškwítur] Hemen bokal arteko konsonante galera izan dugu lehenik, eta gero hiatoa diptongo bihurtu da, *wi*.

→ Hiatoak

— Tinbre bereko bi bokal degeminatu egiten dira bi adibide hauetan ikus dezakegunez:

mehetu = [métu] mahastei = [mástei̯]

— Zenbait kasutan, hiatoan dauden bokalak itxi egiten dira:

joan = [xúen] beatz = [bíec] bereala = [beríala] kriada = [kríera]

Eta bestetan, bokal galera ere aurkitu dugu: eroaten = eruten.

3.1.2. Bokal elkarketak

Tartetxo honetan, hitz amaierako bokal eta -a mugatzaileak sortzen dituzten aldaketak fonetikoak erakutsi nahi ditugu. Ohar bat egin nahi nuke aurrera egin aurretik: *i* + *a* = *ixe* dugu. Zer dugu, baina, *x* hori, frikari sabaikari ahoskabea [š] ala ahostuna [ž]? Gure ustez, frikari sabaikari ahostuna da kasurik gehienetan, eta hala jarri dugu. Dena den, beste batzutan ahoskabearen aldeko azaldu gara. Fenomeno honek garapen luzeago batetako lana eskatzen du, nire ustez, azkenean ez baitut argi transkribatzerakoan dudan zalantza den edo benetan bi aldakiak ematen diren Aramaion. Dialektologia manualetan

ere, Gipuzkoako bizkaierak ahoskaberantz jotzen duela agertu arren, Aramaion ahostuna entzun daitekeelako eritziren bat aurki daiteke.

a + a = ie	[aláβie]	[álaβak]
e + a = ie	[šemie]	[šémiek]
i + a = ixē	[iríže]	[irížek]
o + a = ue	[aštúe]	[aštúek]
u + a = ue	[katúe]	[katúek]

Fenomeno honi buruz, Patxi Uribarrenek bere “Aramaiona’ko...” artikuluan (1972: 159) «Bizkaiko erara amaitzen ditugu itzak bakarrik darabilguzanean. Au dala-ta, xe, ie amaituko ditugu itzak: idixa, beixe, aundixe... aite, ormie...» dio.

3.1.3. Asimilazio-disimilazioak

→ Asimilazioak

amental = amántal	atara leike = atalaike
belarritako = [Beláritəko]	ebagi = [éβe]
elastun = [eléstun]	erlakisten = erlákesten
errama = arrama	errogatiba = [eréβatiβa]
isaten = iseten	lusatu = [lušétu]
pertika = [pértaka]	rasero = [rēšéro]
ukabil = [ikuβil]	

→ Disimilazioak

asta = [ášte]	ezten = ísten
---------------	---------------

3.1.4. Bokal alternantziak hizkeraren arabera

akuiju = [ákulo]	goru = [Yóro]
ostatu = [óštato]	sorburu = [šóřBuro]
tximurtu = tximortu	

Kontsonante alternantzia hauek ere jaso ahal izan ditugu:

farol = [fáyol]	sébo = [séyo]
-----------------	---------------

3.1.5. Beste hizkuntzetiko maileguak

caño = [káɲu]	estribo = [éstriβu]
murko = [múřku]	plato = [plátu]
trillo = [trílu]	

3.1.6. Bizkaieraren ezaugarriak gordetzen dituzten hitzak

emakume = emakuma	ilegorri = [úleɣo̞ri]
irentsi = [irúnci]	irin = [úrun]
irten = [úrten]	landare = [lándara]

3.2. Kontsonanteak

Kontsonanteei eskaini diogun atal honetan, bi azpiatal nagusi desberdindu ditugu. Batetik, lexiko mailari dagokiona, hau da, hitz batean berean gertatzen diren fenomenoak aztertzeari ekingo diogun azpiatala. Bigarrenik, kontsonante bik elkar jotzen dutenean gertatzen diren fenomenoak aztertzeari eskaini diogun azpiatala, zenbait sandhirena hain zuzen.

3.2.1. Lexiko maila

3.2.1.1. Herskariak

→ G-ren bokal arteko galera

egiten = eiten
egoten siren = eotesien
ikestegi = [ikéstej]

→ D-ren bokale arteko galera

uste dot = usteot
asistiduten = asistiute

→ Ezaugarri arrunta da $d > r$ bihurtzea bokal artean; honela gertatzen da kasu askotan. Hona Aramaion jaso ditugunetako zenbait:

edo = ero	edariak = erarixek	burkadak = [βúrkara]
moduen = moruen	abadea = [ábare]	

Ultrazuzenketa dugu kontrako kasuan: $r > d$ bihurketa.

barriri = barrido

3.2.1.2. Aditz partizipioaren azken n -a

Oso maiz galtzen du aditz partizipioak azkeneko n -a Aramaion auxiliarrari lotua doanean:

batzen euen = batzeuen
egoten ziren = egotesien
emoten jakon = emotejakon
martxetan baotzun = martxetabaotzun

3.2.1.3. R-ren bokale arteko galera

diela = diela
 atara = ataa = [áta]
 begikorik = begikoik

3.2.1.4. Erderazko -ON hitz amaiera

Koldo Mitxelenak dioenez (1976: 147), bi silabatik gorako hitzetan emaitzak desberdinak izan dira: aintzinako bizkaierak *-oe* eta *-oa* egin du zenbait atzizkiren aurrean; egun, *-oe*, *-ue*, *-oi* ditugu. Aramaion [melákotoj], [tablój], [pulmój], [liístój], [kwártój], [ařmaśój], [pikačój], e.a., jaso ahal izan ditugu, baina hauen ondoan [kwártoe], [káxoe], [kólčoe], [kařáxoe] ...

Fenomeno hau oso interesgarria da eta aparteko ikerketa bat mereziko luke. Dena den, bi arrazoi datorkit burura *-oe/-oi* alternantzia hau azaltzeko. Batetik, argi erakusten da maileguak diela jarri ditugun adibideak eta, bide horretatik, amaiera bat edo bestea erabiltzeak mailegua hizkeran arinago edo beranduago sartzeari suposa lezake. Bestetik, inguruko hizkeratan zer gertatzen den aztertu beharko litzateke, Aramaio azpieuskalki mugan izateari egotz bai lekiok bi eratako amaiera horiek gertatzea.

3.2.1.5. —i— bokalak eragindako kontsonante bustidura

Gertakari hau ere oso arrunta da euskal fonetismoan eta Aramaion adibide ugari jaso ahal izan dugu.

- in > iñ mordasakiñ, baiñe, [lářij], [éraj̃j], ifiñialditxo
- it > itt eittesan, aspittik, goittibera, jausitte, eittejako, [naʃiʃuri], eitteko
- il > ill maillie, sillue, [čířiʃlo]
- int > iñtt ipiñttejakon
- ild > illdd [mařpíʃdu], illdde
- ind > iñdd matillakiñdde
- is > ix lixu, gixonoi

3.2.1.6. “J”ren bilakaera

Aramaion, Gipuzkoako bizkaieraren eremu osoan bezala, *j* frikari belare ahoskabea dugu [x]. Argi erakusten dute [xóři], [xóřtun], [xóřtořac], [xúntura], [xáři], [xán], [xúñguđa] ... hitzek eta aditzari ekingo diogun tartean agertuko zaizkigun [xořek], [xak],

[xáuan] ... formek. Aski ongi azpimarratua agertzen zaigu kontu hau eskuartean darabilgun P. Uribarrenen artikuluan (1972: 159) ere.

Oso gertakari berezia gertatzen da *j* frikari belare ahoskabea eta *u* bokala elkarren segidan direnean. Mitxelenak honela deskribatzen du bere *Fonética histórica vasca* liburuan (1976: 173):

“En un número reducido de ejemplos, [jw] procedente de *jo- ha tenido una evolución especial:

De *joan* ‘ir’, vizc. Eibar, Elgueta, Placencia, guip. Alsasua, Olazagutia, Echarri-Aranaz, a.-nav. Fuenterrabía, aezc., sal., ronc. Vidángoz *fan*, vizc. Placencia y Oñate *fuan*, ...

El paso de [x] a [f] se ha dado también ocasionalmente ante *u* silábica: a.-nav. Oyarzun *fuera* ‘inclinación’, que tiene normalmente tres sílabas, de *joera*; vizc. Oñate *fusturi* ‘trueno’, de (vizc.) *justuri*.”

Mitxelenak Oñatirako aurkezten duen bilakaera Aramaion ere aurkituko dugu; *joan* = *fuen* daukagu; dena den, *joaten* > *juaten* bitarteko kasua ere jaso ahal izan dugu. Ez da harritzekoa, nire ustez, kontuan izanik Aramaio azpieuskalki muga dugula.

3.2.2. Zenbait sandhi

3.2.2.1. Kontsonante herskariak

Hitz baten amaieran eta bestearen hasieran, bi herskari elkarren ondoan jartzen direnean, oro har, silaba amaieran dagoena mutu eta silaba hasierakoa ahoskabetu egiten dira; hau, dagoeneko, ahoskabea bada, lehena galdu egiten da. Hau da fonetika manualetan dioena. Zer dugu Aramaion? *T* ondorengo *b*, *d* ez dira ahoskabetzen; bai, ordea, *g* hiru kasuetan, lehen herskaria galdu egin delarik.

Silaba amaierako herskaria *k* denean, galdu egiten da kasu guztietan, ondorengo silaba ahoskabea zein ahostuna izan.

Herskaria + txistukaria ditugunean, emaitza afrikatua izaten da, Aramaion herskariaren galera badugu ere: *t + s > s*; *k + s > s*.

Herskaria + *l* edo *n* dugunean, herskaria galdu egingo da.

Jarraiko adibideak bata bestearen segidan jarri baditugu ere, zera azpimarratu behar dugu, muga fonologiko desberdinak aurkituko ditugula adibideotan. Izena + izena, izena + aditza, izena + zenbatzailea, izena + atzizkia mugak aurkituko ditugu.

→ —t—

t + b = b	polit bat = [políβat]
t + d = d	senbat dire = [sembáðĩ'e]
t + g = k	senbat gara = [sembáka ^a]
t + k = k	senbat kaja = [sembákaxá]
t + p = p	senbat piñu = [sembápiɲú]
t + l = l	senbat leku = [sembáleku]

$t + n = n$	bostna = [bosnan]
$t + s = s$	senbat sare = [šembášare]
→ —k—	
$k + b = p$	guk bai = [gúpaj]
$k + d = t$	laurak dira = [laúrétiə]
$k + g = k$	seinek gureosu = [še]nékurušu]
$k + p = p$	etxetik parisera = [ečétiparišea]
$k + k = k$	barrutik kanpora = [bařútikampóa]
$k + s = s$	nortzuk sare = [norcúšaje]

3.2.2.2. Txistukariak

Esan dezagun hasteko, bizkaieraz, ia bere osotasunean, *s/z*, *ts/tz* oposaketak galdu egin direla *s* eta *tz* nagusituz. Dena den, izan dugu zalantzaren bat zenbait hitz transkribatu beharra suertatu zaigunean. Bi adibide: jatsi = [xáci] transkribatu dugun bitartean, itsu = [íču] egin dugu, bietan ere traskribapenaren zalantza ikurra jarri dugularik.

Hiru testuinguru desberdinetan aztertu ditugu txistukariak:

— txistukaria + txistukaria: txistukari afrikatua da emaitza.

— txistukaria + herskaria: txistukari frikaria + herskari ahoskabea. Aramaion, ordea, ez da betetzen *g*-ren kasuan, ahostun mantentzen baita. Txistukaria afrikatua bada, frikari bihurtuko da.

— txistukaria + l, n: adibide oso argi eta hedatueta, herskaria erori egiten da.

→ Frikariak

Erakusten ditugun adibide guztietan ez + aditza muga dugu.

$s + l = l$	ez leuke = [eláuke]
$s + n = n$	ez nekien = [enékižen]
$z + z = tz$	ez zatoz = [ecátos]
$s + b = sp$	ez bazara = [ešpáša ^a]
$s + d = st$	ez dakit = [eštákiŋ]
$s + g = sg$	ez gara = [ešʎa]

→ Afrikatuak

Kasu konkretu honetako adibide guztiak, sintagma osaketan gertatzen dira, sintagma bera direlarik adibide guztietako bi osagaiak.

$tz + b = sb$	aberats bat = [aβerášβat]
$tz + d = sd$	marats diferenteak = [marášdiferéntiek]
$tz + g = tzg$	saietz gutxi = [šajécʎuči]
$tz + g = sg$	lapitz gorriak = [lapíšʎorik]

4. IZEN MORFOLOGIA

4.1. Deklinabidea

Jarraiko lerroetan, Aramaion jaso ditugun izen berezi eta arrunten deklinabide formak jarriko ditugu. Izen arruntei dagokionez, bokalez eta kontsonantez amaituriko eredu desberdinak jartzen ditugu.

Hona deklinabide formak erakusten dituzten berezitasunik aipagarrienak:

⇒ Bizkaiera osoan bezala, absolutiboak eta ergatiboak forma berbera dute pluralerako (*álabak, astúek, ollárrak*).

⇒ O-z amaituriko hitzetan, datiboan, genitiboan eta destinatiboan, forma berbera dugu singular eta pluralerako: *astúei, astúen, astúendako*.

Kontsonantez bukatutako formetan ere, ergatiboa, datiboa, soziatiboa eta destinatiboa berdin egiten dira singular eta pluralean: *ollárrak, ollárrai, ollárrakin, ollárrrendako*.

Genitiboa, o-z amaiturikoetan ez bezala, bereiztu egiten da: *ollárran/ollárren*. Soziatiboan, ordea, galdu egin da *-gas* (singularra) *-kin* (plurala) desberdintasuna: *ollárrakin* bi formetan.

⇒ Aramaion, instrumental kasuaren izatea galdua dela esan dezakegu. O-z amaituriko hitzetan mugagabeen baizik ez da mantentzen (*astoz*), singular eta pluralean motibatiboko formetara jotzen delarik (*astúeaittik, astúekaaittik*).

Kontsonantez bukatutako hitzetan ere galdu egin du izate hori eta hutsunea betetzeko ablatibora jo da: *ollárrreti, ollárrati, ollárrakati*.

⇒ Inesibo kasuan, bizidun-bizigabe bikoizketa galdu egin da bizigabearen formen alde: *astuen, astúetan eta ez astúegan edo astúengan*.

⇒ Adlatiboan, ordea, gordetzen dira bizidunei dagozkien formak: *astúeana, astúekana, ollárrana*.

⇒ Azentoari dagokionez, bereizgarria kasu urri batzuetan baizik ez da: *-o* bokalez amaituriko ergatibo singularrean *astuék/astúek*, oxitonoa eta paroxitonoa ematen dizkigute. Pluralean, paroxitonoa.

Erakusleetan, datiboan *onei/ónei* eta genitiboan *arén/áren* azentoaz bereizturik singularra eta plurala.

Beste kasu guztietan, azentoak ez du indar bereizgarririk eta deklinabide markak dira bereizketa egiten dutenak.

Tauletan eta adibidezko esaldietan, markatu egin dugu azento grafikoa eta bertan ikusiko dugu dituen toki desberdinak.

Hona, jarraian, deklinabide taulak:

4.1.1 Izen bereziak

Bokalez bukatuak

Ergatiboa:	
Datiboa:	
Genitiboa:	Marítxun
Inesiboa:	Marítxugan
Adlatiboa:	Marítxuana
	Bílbora

Kontsonantez bukatuak

Madálenek
Madáleni
Madálenen

4.1.2. Izen arruntak

✓ «A» bokalez bukatuak: «alaba»

	Mugagabea	Singularra	Plurala
Absolutiboa:		alábie	álabak
Ergatiboa:		alábiek	álabak
Datiboa:		alábiei	álabai
Genitiboa:	alában	alábien	alában
Inesiboa:	eléixatan	eléixan	eléixatan
Soziatiboa:		alábiegas	

✓ «O» bokalez bukatuak: «asto», «itsaso», «sulo»...

Absolutiboa:		astúe	astúek
Ergatiboa:	astók	astuék/astúek	astúek
Datiboa:	ástoi	astúei	astúei
Partitiboa:	astóik		
Genitiboa:	aston	astúen	astúen
Soziatiboa:	astógas	astuégas	astúekin
Motibatiboa:	astógaittik	astúeaittik	astúekaittik
Destinatiboa:	astóndako	astúendako	astúendako
Instrumentala:	astoz	astúeaittik	astúekaittik
Prolatiboa:	astótzat		
Inesiboa:	mutikotan/astótan	astuen	astúetan
	itxésotan	itxésuen	itxésuetan
Leku gen.:	itxésotako	itxéseko	sulúetako
Ablatiboa:	astúetatik	astótik ¹	astúetatik
	sulótatik	sulótik	sulúetatik
Adlatiboa:	astótara	astúeana	astúekana
	itxasóta	itxesóra	solúetara

¹ Deklinabideko formak jaso nahi izan ditugunean, ablatiboari dagokiola, amaierako k-rekin eman badizkigute ere, solasaldiak ekarri dituen zenbait formetan k-arik gabeko formak jaso ahal izan ditugu:

sulotik > suloti

puntetik > punteti

kaletik > kaleti

M. adlatib.:			sulúetaraiño mutíkuekana
Hurbiltze adl.:		astúen aldera	
✓ <u>Kontsonantez bukatuak</u>			
Absolutiboa:		ollárra	ollárrak
Ergatiboa:	ollárrek	ollárrak	ollárrak
Datiboa:	ollárrri/ollárrei	ollárrai	ollárrai
Partitiboa:	ollárrrik		
Genitiboa:	ollárran/ollárren	ollárran	ollárran
Soziatiboa:	ollárrekin	ollárrakin	ollárrakin
Destinatiboa:	ollárrendako	ollárrendako	ollárrendako
Instrumentala:	ollárreti	ollárrati	ollárrakati
Prolatiboa:	ollartzat		
Inesiboa:		ollárrekin	
	sagárretan	sagárrien	sagárretan
Adlatibo so.:		ollárrana	
		sagarréra	
Hurbiltze adl.:		ollárran aldéa	
		sagárran aldera	
Muga adlatiboa:		sagarréraiño	

4.1.3. Plural hurbila

Absolutiboa:	gastíok
Ergatiboa:	gastíok
Datiboa:	gastíoi
Genitiboa:	irúron/irúrona
Inesiboa:	bíxokin
	mendíetan/etxíetan

4.2. Adjjetiboa

- gisónau ni BÉSTEKO altue da.
- niri emouste irí BESTE.
- nire etxie iríe BAÑO SURÍXAUE dok.
- nire etxie iríe BESTEKO SURIXE dok.
- atzó BAÑO jente GÉIXAU etorriok.
- nik len BÁÑO GUTXÍAU irebaste joat.
- OBÁ dok bakarrik etortie.
- jugadore au ni baño OBÍE rok.
- au etxéau AUNDÍXEIXE dok.
- emén jenté LARREI jak.

- *emengo AUNDÍXENA* nok.
- *emen astúe AUNDÍXENA* neu nok.
- *emengo BAJÚENA* nok.
- *emengo astoik TXIKÍXENA* nok.
- *emen dauenik GÉIXEN* artu rok.
- *emen dauenik GUTXÍEN* dok kastañie.
- *ONÉNA* dok dauen moduen istíe.
- *nire lagunek semie dauke Panplónan MERÍKU.*
- *mutillori AUNDÍXE* dok.

4.3. Erakusleak

4.3.1. Erakusle arruntak

Absolutiboa:	áu	onéik	orí	orréik	a	áreik
Ergatiboa:	onék	onéik	orrék	órreik	aréik	áreik
Datiboa:	onei	ónei	orréiri	órrei	ári	aréi
	oní					
Genitiboa:	onén	onéin	orrén	orréin	arén	áren

4.3.2. Indartuak

áuxe/auxebérau	oribéroi	berá	éurak
----------------	----------	------	-------

4.4. Galdetzaile, izenordain eta adberbioak

- *SEÍÑ* etorri da? *SEINTZÚK* etorri rie?
- *SÉR* ekarri ok gaur?
- *bixétati SEÍÑ* ddator? *SEINTZÚK* gure ittusue?
- *SÉLAN* dau ori?
- *SÉNBAT* dirú daukek?
- *NÚN* egon ax?
- *NÓS* egoten as etxien?
- *NOSTÍNORA* jauk ori gaixorik?
- *orrek estau ERÓSEIN* ardau eraten.
- *esánik ERÓSER* gause.
- *seiñ joiepa orra? ERÓSEIN.*
- *non topau leikek ba jana? ERÓSEIN LEKUTAN.*
- *orrek ERÓSEIN MORÚTAN* eingo jok.
- *gaur BATÓMAT* etórten bok esaixok enauela.
- *ba, topako jauk SEÓSER.*
- *gurok SEÓSER* ekartie?

- *gisónen BATZUK etorte ittuk berandu.*
- *katue etxoat topetan; egóngok NUNBÁITTEN.*
- *ikusittuk nire sapatak NUNBÁITTEN.*
- *BATZÚETAN emote juek gutxiau ardixek esnie.*
- *asárratu as NOSBÁITTEN.*
- *ori SELÁNBAITTEN eiñeik eta itxíxok.*
- *ori esin léikek ein SELÁNBAITTEN.*
- *nik etxóat ESÉBE ikusi.*
- *nik etxóat INÓBE ikusi birien.*
- *ni enok konbensiduko INÚNDINORÁ be!*

5. ADITZ MORFOLOGIA

Jarraiko hauek dira, labur bilduz, Aramaioko aditzaren ikerketa arin batek erakusten dituen berezitasunik aipagarrienak:

⇒ Aramaioko aditzaren berezitasun aipagarrienetakoa alokutiboaren erabilera da, hika formena hain zuzen. P. Uribarrenek berak ere (1972: 159) argi diosku «*asko erabilten dogu, batez bere baserritarrak, 'ika' aditz jokoa eta beti arnas gogorraz: Eroan joat, jok, joagu... jítuk, jítuek... joan nintsoan, gintsozan, eta abar...*». Galdetu dugun guztietan eman zaigu alokutibo forma eta bizi-bizirik dago, nire ustez, oraindik ere, Aramaion erabilera berezi hau.

⇒ *Emontzie, entzúntzo, entzúntzau, átaik, urténtzet, erósinen* eta honelako forma asko, bestalde, Aramaion aditz jokoan gertatzen diren laburtze gogorren adibide batzu besterik ez dira (ikus Uribarren, 1972: 159).

⇒ Aramaion, zenbait aditz jokotan orain aldira jotzen da lehen aldia egiteko. Argi ikusten da hau nork-nori-zer formetan:

otzu = dotzun tzesu = tzesun

⇒ Zer hirugarren pertsona singularra eta plurala ez dira bereizten, singularreko forma hartzen delarik bietarako:

<i>orrí okélie gustétan JAKO</i>	<i>orrí sagarrak gustéta JAKO</i>
	<i>orrí lagunek etorri JAKO etxea</i>
<i>árei okélie gustéta JATE</i>	<i>orrí² lagúnek etórri JATE</i>
<i>orrí gustau JAKON okélie</i>	<i>orrí sagárrak gustáu JAKON</i>
<i>orrek beórrek aittei entzún TZO ori</i>	<i>orrek istórixá sarrak beoren aittei entzún TZO</i>

⇒ Aspektua

Aspektu-marka aditz nagusiari loturik agertzen zaigu; kategoria honek ez du autonomiarik (ezin da aditzetik berezi) eta hiztunak adierazi nahi duen prozesua bereganatzeko

² *orrí* badugu ere, Erakusleei eskaini diegun ataltxoan *órrei* erakutsi dugu. Argi dago azentua kontestuala dela eta *orrei* horrek esaldian hartzen duen tokiaren arabera, azentua toki batean edo bestean eramango du.

erabiltzen du. Kasu batean, aditzak adierazten duen egoera, ekintza, e.a., *burutua* dago (*etorri da*); *bestean*, prozesu bera *burutu* gabe aurkitzen da (*etortzen da*); *hirugarrenean*, hasi gabe eta gertakizun den zerbaiten aurrean gaude.

Burutua (+ iragana - geroa). Hiru aspektu marka ager daitezke:

— n-z amaitzen diren aditzek ez dute aspektu markarik:

nún egon ax? *etxoat esan*

— -tu marka dutenak: *artu rok*

— i- marka dutenak: *etorri ok* *séin etorri da?*

Geroa (- iragana + geroa): -go/-ko marka erabiltzen da Aramaion aditz partizipioari itsatsia; n-z bukatzen diren hitzetan, -go; -ko besteetan.

orrek erósein morúten eingo jok

enok konbensiduko

ni etorko nok

Ezburutua (- iragana - geroa). Bi atzizki ditugu aspektu ezburutua markatzeko Aramaion: -ten, -ketan.

— -ten/-tan: *irebaste(n) joat* *estot jaten* *emóte(n) juet*
estau eraten *etórtén bok*

Disimilazioz -tan: *urtetan dau/deu*

-*tatu* bukaera duten aditzetan -*tau* egin eta gero -*tauten* > -*taten* > -*tetan* gertatzen da:

aparteta otzo

— -ketan: aspektu ezburutu marka hau Gipuzkoako bizkaieraren bereizgarria da. Txillardegiren *Euskal gramatika* liburuan (1979: 379-80) dugu -*ketan* honi buruzko azalpena:

“GERTATZE (=aditz-izena)

5. ikaskaian azaldu genuenez, izenketan ageri du honek bere funtsa: egur biltzen, mando moztzen, ardo edaten, kondu hartzen, eta abar. Alderdi guztietatik ikus daiteke izenketa: egurbilketa, mandomozketa, ardoedanaldi, konduharrera, eta abar, sortuko bagenitu bezala.

Ez da guztiz «grammaire-fiction». Ezagunak dira Oñate-Arrasate inguruko aditz-izenak:

aginketan (=agintzen)

illóketan (=illotzen)

saláketan (=salatzen)

úrteraketan (=urreratzen)

urrínketan (=urrintzen)”

Aramaion jaso ahal izan ditugun zenbait adibide:

— *Gero beraketan* (=beratzen) *ifinte san*.

— *Matasok lenengo egosi eitte sien suriketako* (=suritzeko)

— *Gañien euken kaskarillie kendu iten jakon eta geraketa san* (=geratzen zan) *barruko une*

— *Isentaute euken parájie ikuketan* (=ikutzen); *berak lenau ikuketan baotzen bera geráketa san* (=geratzen zan) *libre...*

Ikus dezakegunez, *-ketan* hori deklinagaia da eta *-tu* amaiera duten aditzetan baizik ez da gertatzen; are, hiru silaba duten aditzetan bakarrik.

Jarraian, aditz perifrastikoaren auxiliarrari eta aditz trinkoei dagozkien formen taulak dituzue.

5.1. NOR

Indikatiboa

Oraina	Hitanoa	Iragana	Hitanoa
NAS		NINTZEN	
AS		INTZEN-INTZAN ³	
DA	DOK/N	SAN	SOAN/SONAN
GARA		GINTZEN	
SARA			
SARIE		SINTZEN	
DIE		SIREN	

Baldintza

Aurrekoa	Ondorioa
BANINTZ	
BAINTZE	
BALITZE	BALITZOK/N
BAGINTZE	
BASINTZE	
BALITZES	SOAN/SONAN // JAGUAN/NAN

Subjuntiboa

Orain	Iragana
DAITTEN	DAITTEN
DAITTESEN	DAITTESEN

Ahal era

LEIKE	LEIKEK/N	JEIKEN	JAIKAN/ENAN
-------	----------	--------	-------------

³ Bi lekuko desberdinen erantzunak.

5.2. NOR-NORI**Indikatiboa**

Oraina

Iragana

Ni

TZET

JOUTZAT/ENAT NEUTZEN/NETZEN

TZEK/TZEN

TZESU

Hura

JAT

JATEK/N

JATEN

JATAN/JATONAN

JAK/JAN

JATAN/JANAN

JAKO

JAKOK/N

JAKON

JAKOAN/JAKONAN

JAKU

JAKUN

JATZU

JATZUN

JATZUE

JATZUEN

JATE

JATIEN

Haiek

JAKO

JAKON

JAKOAN/JAKONAN

JATE

Baldintza

Aurrekoa

BALETXAKO

Subjuntiboa

Hura

DAKIXON

5.3. NORK-ZER**Indikatiboa**

Orain

Iragana

Ni

NOK/NON

NIÑDDUAN/NINDUNAN

NAU

NIÑDDUN

NOSU

NIÑDDUSUN

NAUE

NIÑDDUEN

Hura

DOT	JOAT/NAT	NEN	NAIXUAN/NAN
DOK/N		EUAN/ENAN	
DAU	JOK/N	EUN	JOAN/NAN
DOU	JOAU/NAU	GEUN	GAIXOAN/GAIXUNAN
DOSU		SEN	
DOSUE		SAUEN	
DOUE	JUE/JUNE	EUN	JUEN/JONEN

Gu

GAITU	GIÑDDUEN
-------	----------

Haiek

DITU	JITTUK/N	SITTUEN	JITTUAN/JITTUNAN
DITTUE			

Baldintza**Aurrekoa****Hura**

BALAU	BALEIXOK/N
BALAUE	

Haiek

BALITU

Ondorioa**Hura**

EUKORAU	EUKO JOK/N	EUKO JOAN/JONAN
EUKO SITTUEN		
LITTUKE		

Subjuntiboa**Ni**

NAIXEN	NAIXEN
--------	--------

Hura

DAITTEN	DDAIAN ⁴ -NAIXEN ⁵
DAIXAN/DAIÑAN	

⁴ Bustidura, testuinguruaren eraginaren ondorio.⁵ Bi lekuko desberdinen erantzunak.

DAIXUN

DAIXEN

DEIXEN

Haiek

DAIXEN

DAIXEN

Ahal era

Hura

LEIKE

LAIKEK/N

JEIKEN

JAIKAN/KENAN

LEIKE

LEIKEK/N

Aginte era

Hura

ATA!

ATA IXU/IXEK/N!⁷

5.4. NORK-NORI-ZER

Indikatiboa

Hura-niri

OSTEK/OSTEN

DOUSTAN/OSTENAN

OSTESU

OSTESUN

Hura-hiri

OSTAT/DONAT

DOUSK/CEN

DUSTAN/DUNAN

Hura-hari

TZET

JOUTZAT/ENAT

NOTZEN

NOUTZAN/NOUTZENAN

TZEK/N

TZAN/ENAN

TZO

JOTZEK/N

TZEN

JOUTZAN/JOUTZENAN

TZAU

JOTZAU/ENAU

GOUTZEN

GOUTZAN/GOUTZENAN

TZESU

TZOSUN

TZIE

JOTZIEK/ENA

TZIEN

JOTZEN/JOTZENAN

⁶ Frikari sabaikari ahoskabea.

⁷ Hirurak dira frikari sabaikari ahoskabeak.

Hura-zuri

OTZUT

OTZU

DOTZUN

Hura-haiei

DOUTZO

TZEN

DOUTZE

TZIEN

Haiek-hari

TZO

JOTZEK/N

TZEN

TZIEN

Baldintza

Hura-hari

BALOUTZO

BALOUTZO/BALOUTZENE

Subjuntiboa

DAISTEN

DAIXON

Ahal era

LEIXO

LEIXOK/N

Aginte era

DEK/REN

DAIXU⁸

5.5. Aditz sintetikoak

JOAN

Nor

NINDDOIEN

OIE

DOIE

JOIEK/JOIEN

JOIEN

JOIAN/JOIENAN

⁸ Frikari sabaikari ahoskabea da.



SOIESE
DOIES

Nor-nori

Hari
DUEKO

EGON

Nor

NINGUEN

AU
DAU

JAK/JAN

EGUEN

JAUAN/JAUNAN

SAS
SAUSE
DAUS

Nor-nori

JAKO

ETORRI

Nor

NIÑDDORREN

ATOR
DATOR

JATOK/N

ETORREN

JATORRAN/JATORRENAN

SATOS
SATOSE
DATOS

Nor-nori

DATORKIO

IBILI

Nor

NABILLEN

ABIL
DABIL

JABIK/N

EBILLEN

JABILLAN/JABILLENAN

SABILTZ
SABILTZE
DABILTZ

EUKI

Hura

DAUKET

DAUKO

DAUKOU

DAUKAZUE

DAUKIE

JAUKEK/N

NAUKEN

AUKEN

JAUKAN/JAUKENAN

Haiek

DAUKO

EKARRI

Hura

DAKAR

DAKAZUE

DAKARRIE

JAKAK/N

NEKARREN

EKARREN

JAKARRAN/JAKARRENAN

Haiek

DAKAR

EROAN

Hura

DARUET

DARUE

DAROSUE

DARUE

JAROIEK/N

NARUEN

EROIEN

JAROIAN/JAROIENAN

Haiek

DARUE

JAKIN

Hura

DAKITT

DAKI

DAKISUE

DAKIXE

JAKIXAT/ÑAT

NAKIXEN

AKIXEN

Haiek

DAKI



Jarraian, Aramaion jaso eta sintaxiarekin zerikusia duten zenbait esaldi jarriko ditut. Gainbegirada azkar batek zera erakusten digu:

- Aditz izenlaguna bizkaieraz egiten den bezala (-TEN) egiten dela, ez -TERA.
- Ezezko esaldian *ogixe* eman digu, ez *ogirik*.
- Behar, nahi ahal/ezin aditzetan, auxiliarra egiteko nork-zer formetara jotzen da, ez nor forma soiletara.
- Alokutiboari dagokionez, menpeko esaldietan ez da erabiltzen; bai, ordea, galderatan.
- Konpletibak egiteko -LA dugu forma arrunta; -NIK ezezko esaldietan, eta -NA zihurtasuna erakusten duten esaldietan.
- Zehar galderatan gaztelaniaren eragina antzeman daiteke '*aber barátorren*' horretan baina beste adibideetan ondo ikusten da -N atzizkia ondo gordetzen dela.

Besterik gabe, hona Aramaion jaso ditugun esaldiak:

→ UTZI aditza + adlatiboa

itxíona orí EITTEN.

→ Aditz izenlaguna

ní ogíxe EROSTEN noie.

→ Ezezko esaldiak

orrek estáu erosi OGÍXE.

→ Murritzeta marka:

nik estót jaten irú perretxiko kláse BAÑO.

→ Galdera marka

sure anaiek INDDÁU lana?

→ JAKIN + nominalizazioa (TEN)

nire andríek baráki JOSTEN.

→ EDUN/EDUKI IZAN/EGON

nik semíe Amériketan DÁUKET.
emén jente askó EGÓN DA.

→ Hurbileko ez perfektiboa

orréik bedarra ebágiten DABILTZ.
Pedró jatén DAU.

→ BEHAR, NAHI, AHAL/EZIN

*ba, juen inbíeko SU.
 bixer guréko SU Donostire juatie.
 bixer Donostire jua SÉIKE.
 bixer esin ixéngo SU Donostire juen.*

→ Faktitiboa

orrék jan ERÉIN tzo ori.

→ Galdegaia

*nók ekarri dau astue? NEURÉ ANÁIEK.
 etxáuen gosue bañe JÁNEN/JÁNDOT.
 basátos ala juen inbiosu?
 ETÓRRI SATOS ala JÚEN SOIES?⁹*

→ Elkarrekikotasuna

gu atzó ikusi GIÑUN.

→ Gerundioa

lan ÉIÑAS ikusten da.

→ ALOKUTIBOA galdera eta menpekoetan

*ni etórko nok, bañe bera ETÓRRI KOK?
 nik usté joat etórriko DALA.*

→ Konpletibak

*nik etxóat esan ardáue obíe DANIK esné baño.
 ni bákixat egíxe DANA.
 nik usté joat egixe DALA.*

→ Zergatikoak

*ori etzóan eskondu Juanégas aberátza SALAKÓ, e!, guré itzelako baño.
 etxákiat illdde egón ran, aspáldi etxóat ikúsi!*

→ Kontsesibak

*gaixóik EGÓNDA BE lan ein bi joat.
 geixóik EGÓNATI lana in bi joat.*

→ Denborazkoak

*ikúsi NAUÉNIEN martxáu in jok.
 ni bisi nasen ARTIEN estok kanbíxouko au!
 kotxé barrixe erósten DOANIEN emóngostek sarra.*

⁹ Esaldí hau ez zuen lekukoak berez eman; inkestagileak proposatu eta baietz, beraiek ere erabiltzen zutela erantzun zuen. Dena den, berak aurrekoa eman zuen galdetu zitzaionean.

→ Baldintzazkoak

*ik ori esáten BOK asárratu ingó jakok.
éu BAS iten doána niri parrá jaustek.*

→ Helburuzkoak

niré gisona mendíre juan dok susá asko topauko DAUÉLAKUEN.

→ Exklamatiak

emen mendíxen jak SUSÁTAN!

→ Zehar galderak

*nik etxákixat etórriko RAN.
pregúntaíxok aber BARÁTORREN.
estutu bat emon biotzat, ba, orrei, aber goxau ibiltan DAN.*

7. LEXIKOA

Sarreran aipatu duguna gogoratuz, EHHA lexikoan oinarritu da neurri handi batean eta altxor izugarria biltzeko aukera izan da. Jarraian agertzen diren hitzak altxor horren erakusgarri dira: nire ustez, hitzok erabilera arruntetik ihes egin eta zenbait galtzekotan izan zitekeelakoan jarri ditut.

Bestalde, euskarazko hitza mugagabeen lortzea izan zen EHHA-ren zereginetako bat eta horretarako bost zenbakia ematen genion aurreinguru: *bost etxe, bost gizon, bost euli*, e.a. Testuinguru horrek baldintzatzen du, bada, hitzak azentoa silaba batean edo bestean eramatea.

Bi ohar labur zerrenda eman aurretik: bat, hitzaren esanahiaren ulertze lanetan euskarri izan nahi dutela euskal hitzaren ondotik kurtsibaz jarri ditugun gaztelania eta frantses (eta kasuan kasuko hitz zientifikoa ere) itzulpenak. Bi, lekukoaren azalpena interesgarria iruditu zaigunean, gurea jarri beharrean lekukoarena berea jarri dugu komilla artean.

Hona bada hitz interesgarrien zerrenda:

ábau: *panal/rayon*. Erleak ezitia ezartze-ko argizarizko moldeetan gelatxo hexagonalaz eginiko eraikuntza.

agósarai: *paladar/palais*. Aho-zerua, ahoaren gainaldea.

ái: *gachas/bouillie*. Esnezko eta irinezko janaria.

aixénamotxitxi: *correhuela / liseron* (*Convulvulus arvensis*). Beste landaren

kontura (garia eta artoa, adibidez) bizi den landarea, lorea eta sustraia zuriak dituen.

albándorratz: koltxoiak josteko orratza.

ámeraun: *telaraña/ toile d'araignée*. Armiamek ehotako ehun edo sarea.

ámetz: *quejigo/chêne tauzin* (*Quercus pyrenaica*). «ametz»; eskurren; agetxa komente da susen, ederraue, ta ametz da

paraje elkorrauen eiten dana. Ametz adarrak dometako uste ot obiek diela. Orri suritxuaue dauko».

ámillen: sartaldeko haizea.

antxier: Arrasate eta Udalatik datorren haizea.

añube: eguzkirik sartzen ez den toki itzaltsua.

arári: *morueco/bélier*. Ardi arra.

árotz: *cascarilla del trigo/balle*. Gari aleak banandu ondoren geratzen den lasto xehearen hautsa.

ártara: *grada/herse*. Lurrazala hazia ereiteko prestatzeko den hoge hortzez homituriko lanabesa.

artósuriketa: «artoak suriketan... afaldu aurreti bebai; soluen egote san artue da garixek erein bia siren da estorbuti kentzeko ekárte san burdixen da gero aik suriketan denborie biar isite san...».

Gastaña batzie: «aga luse batzuk ote sien da gero lurrien mordasa batzukin; egurresko mordasakiñ otzaran, da andik burdire; da gero, ardikortie esate jakon, tejabana bat, da ara; noberak jo eskubera batekin da apartau...».

askápela: «barruti ifiñtten da bendie ta a kanpoti, bendie loittu es daitten».

atélarrin: baserriko alboko atea.

babápurdiña: *molleja/gésier*. Hegaztie, elikagaiak irentsi ondoren, gordezko eta estutuz birrintzeko eta zuku gastrikoz beratzeko, duten hestegorriaren zabalunea.

baráuauste: «baruaustie, lenau paitarra; txokolate kaskuren bat; gero kafie arrautze gorríngoas. Egon san morá bat!».

bátidore: *bastón para disgregar la cuajada/béton pour désagréger le caillé*. Gazta egiteko lehen mamia apurtzeko gorosti edo urretxez egindako tresna.

begíasal: begia estal eta babes dezakeen mintz mugikorra.

bérro: *salamandra/salamandre tachetée (Salamandra salamandra)*. Urodeloen motako batrazio intsektujalea; larruazal leuna du, kolorez beltz bizi-bizia tartekamarteka izpil horiak dituela.

bétula: betzulo bakoitzaren goialdeko arku itxurako ertz iletsua.

bígura: *muérdago/guï (Viscum album)*. Zuhaitz-adarretan eta bereziki sagarrondoetan bizi den garau zurizko landare bizkarroia.

bisíxen: minbizia. Gorputzeko organoetan zelulak era desorekatuz haztean sortzen den tumore gaiztoa; gehienetan, heriotzera eramaten duen gaisoa izan ohi da.

brábanta: *brabán/charrue*. Ildoak eginenez lurak lantzeko balio duen nekazaritzarako tresna handia.

búrtzil: *eje/essieu*. Gurdiaaren gurpilak elkarrekin lotzeko barra luzea.

domáukor: alde batera nahiz bestera oso erraz okertzekoa zein moldatzeko den zuhaitz adarra.

errátu: *retoñar/taller*. «bakotxeti sortzi-amar iguel urtetan deue, erratu esaten jako. Iñddertu dauenien orpo batetik urtetan dau mordue; jeneralien apiril aldera, marti atzenera».

errebóta: *rebanada de pan/tranche*. Ogia kutxiloaz trabesetara ebakiz lortzen dugun ogi zatia.

eskulari: eskuan zerbait eskami eta etorri egiten den animalia; kasu honetan ahuntza.

euríxe diráutzo: euria ari du.

fréstamo: *retoño/rejet*. Zuhaitzondo batek ematen dituen brote berriak.

gátzagi: «gatzagixe isaten da billotxa etxean il da noberak aparteta otzo poltza-txo bat. Da legarra fabriketan eta gertau eitten da».

góldasail: idiekin, goldaketan egun osoan egiten zen zatia.

gosátu: *condimentar/assaisonner*. Janaria puntuan jarri, behar dituenak gehituz.

illégunek: «illegunek die abustuen lelen-goko amabi egunek; lelegokue enero... denpora txarra eitten badau orduko egunien, orduen enero txarra...».

illo: «illue da anpor ille; usteldute dau baiñe estau usteldute; illue paguen gorputze da».

irtíri: *entreabrir/entr'ouvrir*. Irtidigi, atea erdizabaldtu.

irúsi: *verrionda/rut (true)*. Txarri emea, arkela, ar eske dagoenean.

ísten: *lezna/alène*. Zapatariek larruan, goman eta abarretan zuloa egiteko erabiltzen duten tresna punta zorrotza.

ixegur: *varal/perche*. «ixegurre babak eta joteko, bi makillakin...».

íxel: *yegua en celo/rut*. Behorra arreske bero bero dagoenean.

ixéska: *yescal/amadou*. Usteltasuna, bereziki zur eta enborrena, zuhaitzen barruko alde lehorrak eta suharbera.

jági: *fermentar/léver*. Orea egin eta gero, oremahaian uzten denean labara sartu

aurretik, ogia hazi, jagi egiten da. Berdin laban sartzen denean, erretzerakoan.

jotáseilla: *diciembre/décembre*. Abendua.

kamíxa, txánbra: «lenau kamíxie lenengo lenengo; surixe, perkala san, aurretik liñoskue. Gero gonauntze lotu lotu eñfide. Aren gañetik uran pañelu bat, da betik gonie. Da neguen kamisie, da gañetik kamisetia ero... da gero txanbrie; da aspiko gonie, aspittik; da ganeti gonaundixoi. Txanbrie udan bero dauenien es, txanbrie telie san».

kantálarri: *pedra angular/pierre de blocage*. Etxeko lau kantoietan jartzen diren harriak.

karápeixo: «Garisuman, autzegune pasau ta Pasko domeka bitartien emotesan, amapontekok, karapeixue».

károbi: «karie eite san; esate baterako, au aldapie da, está?, da eiten da sulo bat. Da gero beeti atate jako kañue; da barrutik bueltan isten jako 'kornis', euskeras estakit. Maillie iste jako gero an mallan atakie iste jako. Gero barruko aldeti iste jako labiei moduen kobatxuen. Da gero gora neurrixue artu. Atakati egurre sartu. Sulue arbelarrixue dauen lekuen ein bi da; ormie arenarrixegas eite jako».

kiríbillar: *abubilla/huppe fasciée (Upupa epops)*. Buru gainean luma motots tentekorra duen hegazti intsektujalea.

lasáro domeka: Erramu igande «aurrekue lasáro domekie. Orduen elixie lutus jastesan. Barikusantu gaue pasaukuen, Sapatusantus kendu».

lastámarraga: «sako aundi bat lasto malueas beteta; lastamarragie, da aren gañien koltxoie».

lépera: ganaduak uztarrian lotzeko he-deak.

léra: *narria/traîneau*. Zama astunak tata-rez garraiatzeko gurdi aproposa.

léxiba: «Lexibia eitteko tiñie esate jakon».

—Azpien zer jartzen zitzaien?

«Oleskue, egureskue ixete san; da onda-rrien gari lastue edo egurrek ipiñtte jakon. Ure jausteko arrisko untzixe ote san; lexiaske. Emendi fuate san, askatxo bat ote san, tiñalekue. Gero erropa asule aspixen, da gañien surixe... da gero gañien austrapue esate jakon, da ara botate sien autzek. Da gero goittibera ure; epeleti asite. Gero ure garbiketa sanien, a bera».

liñóusta: liñoa biltzeko aroa.

lótzaiki: *vencejo para atar el haz/lien*. Gari sortak lotzeko erabiltzen zena. Garia bera izaten zen gehienetan.

mármrit: ardiei esnea batzeko, jasteko tresna.

máskelo: «maskelue mangu fijue; gañea bajue isete san; oneta... da astie fijue; burriñeskue san; esnie egosi... gasuriet...».

maspíllddu: «sagarra maspíllddu; masuekin jo. Gero a sartu barrikan dana eta ureas bete; mostuen antzekue da».

morókil: uretan arto-irina egosiz eta egosten den bitartean ongi irabiatuz egiten den nahaste bigun lodia.

morróko: atea barrutik ixteko dagoen egurrezko morroiloa.

nagítturri: «nagítturrixen iseten da noisienbein urtetan dauena».

Neurriak eta pixuak: «kuartie, anegie da selemiñe. Reserue san egur biribil bat

gañeti pasetasana. Anegie garixena eitten da, 44,45 kilo; kaurtie, lauti bat; kuarta bat eitteko iru selemiña. Anega erdikue alde batekue; gero beste bat kuartie. Da selemiñiek, alde batetik selemiñie eta bestetik erdi».

ogíbaldo: ogi zatia.

ondárropil: txitxarrez egindako opila.

orémai: *artesa/pétrin, maie*. Orea egiteko mahaia.

órixa: *canal/chéneau*. Teilatu ertzetan jartzen diren kanaloiak urak biltzeko.

póial: kortatan eta, goitik beherako zutikoa harrizko euskarrietan jarria izaten da.

puntéparetx: zapatak josteko untza txikiak.

pétar: *cola de caballo/pràle (Equisetum arvense)*. Landarea, azeribuztena.

sáil: laiaketan egun osoan egiten zen zatia.

sákuta: *saúco/sureau (Sambucus nigra)*. «ori badákitzu setáko dan ona? Jausitte golpeten bat edo aundituen bat eiten bajatzu, sakutien asala egosi da gero bustiñe an berotu da an gorputzen golpie dauen lekuen euki».

sáratz: *sauc/saule (Salix alba)*. «saratza da ona eskubera buruk eta eiteko; ariñe, emen erreka basterretan ongo die. Kurtziek eta eite sien orregas erramu egunien. Asala kentzea jako loriek urtetan dauenien, udabarrixen».

sírigu: «sirigue da bost alanbre, esáte baterako es, da ol bat jartzen da».

Hesi batean alde batetik bestera pasatzeko sistema.

sístro: *monorquídea/monorchide*. Arrautza edo potro bakarra duen animalia.

sópitta: «'au okelíau sopittie modukue da'. Sopittie da lenau abarkai suloa eiten jatien da an ifinten jatien narru sati bat edo...».

sorbátz: zorrotz dagoen kodainari sorbatz ona duela esaten diote.

súarri: «suarrixear gure aurrekoak; arrixear artu da kutxillue da ixeski ifiñ bere kontrán da ra!, jo kutxillueas arrixear da arek su atara eiñ da ixeskiana; ixeskiei putzein da andi. Ori ointzurarte be Etxaungo eleispeien Sapatusantu gabien».

txápítxuela: *tragaluz/lucarne*. Teilatuetan izaten dan argia sartzeko tokia.

txítzar: *chicharrones/graisserons*. Txarri koipeak urtuz lortzen den janaria.

txíxillo: suteetan izaten zen banku luzea.

txorímalo: *espantapájaros/épouvantail*. Txoriak uxatzeko jartzen den gizaki itxurakoa.

txuringa: *vagina/vagin*. Behietan, naturatik barnerantzako tokia.

Hitz hau zentzu honetan erabiltzen da Aramaion, hiztegieta beste esanahia duen arren (Azkuek «*esfinter, anillo circular del ano*» itzultzen du).

uméisera, mánta, páxa: «lenau uméisera; lelengo batzen sien umeiseran; da gero ifintejakon ganetik mantie... da gero paxie esatejakon; an batute lotzesan paxias».

úpetei: «emen estot esetu; or beeko ausuen, Arrixolan, sillue dako, upeteixe. Or erarixek iños, erremolatxa ta neguen».

ux: *encía/gencive*. Hortzak babesten dituzten okelak.

8. TESTU LIBREAK

Testu librean atal honetara Aramaion jaso ahal izan ditugun zenbait kontakizun eka-ri nahi izan dugu. Testuak bi zutabetan jarriak dira; izan ere, ez du inolako zentzurik testu libre bat jartzea gero jartzen duena ulertuko ez bada. Ezkerraldeko zutabea, Aramaion jaso ditugun bezalaxe daude transkribatuak testuok; eskumako zutabea euskara batura itzuliak.

LIÑO A (Marina Padilla -a- eta Iñaki Larrañaga -b-)

Bai, ni gastetxue nintzenien akordetas. Artamañu ingurue, landara gogor bat, lora asultxue; gero bola bat eittejakon, an asixe. Eraiñ eittesan. Lur ariñe eta meietan, lur elkorretan. Usteot garixek ereitesienien, semendixen, da San Antonixo inguruen artu. Atara eittesan. Gero beraketan ifintesan. Osiñek esatejakon, suluek, sortak eittesien. Da areik sortak

Bai, ni gaztetxua nintzenean gogoratzen naiz. Arto tamainu ingurukoa, landare gogor bat, lora azultxua; gero bola bat egiten zitzaion, han, hazia. Erein egiten zen. Lur arin eta mehetan, lur elkorretan. Uste dut gariak ereiten zirenean, azaroan, da San Antonio inguruan hartu. Atera egiten zen. Gero beratzen jartzen zen. Osinak esaten zitzaion, zuloak, sor-

sendor aundixetan lotu ta botatesien oxiñetara. An iru astien otesien. Eta gero selaixen sabaldu eittesan. Da gero atzea batú eittesien, sortatan.

Gero trángau; tramangulu batzuk, osea eukitten euen bittartie; goikuek iru bat, bekuek lau bat; da bittartietan jo ta jo, gañien euken kaskarillie kendu iten jakon eta geraketasan barruko une.

A apartetasan. Aparatue trangie; trangoiñe da bera armasoiñe. Goikue trangaolak.

Gero ol bat egotesan, ortzak eukittesittuen, da an pasau: txarrantxie. Sakarra kendu eittejakon, orrastu.

Gero, ona orduko, eittesan... ixetesan arri kuadro andi bat, está, da eotesien eguresko masuek.

Da batek eutzin da bestiek orregas jo, bigundu.

Trangau aurreti osiñeti ataa ta.

Txarrantxan ipurtondue kendu bijakon. Txarrantxan apartetan jakon fiñe.

Iru klase ixetesian, bata bastue, bestie fiñe, da bestie fin fiñe.

Gero igurtzi. Liño igurstie esatesan. Gero gabien kaldara aundixetan esnie egosi ta sopa jan da juergie eitesan. Belaun gañien artzen sittuen andriok eta igurtzi; da a bixurtu ta matasatxuek eittesittuen.

Gero otesan gorue; da areik matasak emen batzen sien; da onek eukiteneun txapela. Da gero au da ardatza; da eif da emen batzesan; da gero arik áta itesien. Egutesan tenteko bat bueltaka ibiltasana; emen eittesien matasak. Da gero au atatesan da otesan bueltaka ebillen beste bat; da an eittesien obilluek.

Matasok lenengo egosi eittesien tiñan suriketako.

Gero obillue eroatejakon uliei. Gero etxera telie ekartesan, eune. Orregas eittesien gero iserak.

tak egiten ziren. Da sorta haiek sendor handietan lotu eta botatzen ziren osinetara. Han hiru astetan egoten ziren. Eta gero zelaian zabaldu egiten zen. Da gero berriro batu egiten ziren, sortatan.

Gero trangau, tramangulu batzuk, hau da, edukitzen zuten bitartea; goikoak hiru bat, bekoak lau bat; da bitartean jo eta jo, ganean zeukan kaskarila kendu egiten zitzaion eta geratzen zen barruko une.

Hura apartatu egiten zen. Aparatua tranga; trangoia eta bere amasoia. Goikoak, trangaolak. Gero ol bat egoten zan, ortzak izaten zituen, da han pasatu: txarrantxa. Zakarra kendu egiten zitzaion, orraztu.

Gero, hona orduko, egiten zan... izaten zen harri kuadro handi bat, ezta, da egoten ziren egurrezko masuak.

Eta batek eutsi eta besteak horrekin jo, bigundu. Trangatu aurretik osinetik atara eta.

Txarrantxan ipurtondoa kendu behar zitzaion. Txarrantxan apatatzen zitzaion fina.

Hiru klase izaten ziren, bata bastoa, bestea fina, bestea fin fina.

Gero igurtzi. Lino igurztea esaten zen. Gero gauean kaldara handietan esnea egosi eta sopa jan, da juerga egiten zen. Belaun gainea hartzen zituzten androk eta igurtzi; eta bihurtu eta matasatxuak egiten zituzten.

Gero egoten zen gorua; eta matasa haiek hemen batzen ziren; eta honek edukitzen zuen txapela. Eta gero hau da ardatza; eta egin eta hemen batzen zen; eta gero haiek atera egiten ziren. Egoten zen tenteko bat bueltaka ibiltzen zena; hemen egoten ziren matasak. Eta gero hau ateratzen zen eta egoten zen bueltaka zebillen beste bat; eta han egiten ziren obilloak. Matasok lehenengo egosi egiten ziren tinan zuritzeko. Gero obilloa era-

Da eittesien kamixak. Kamixie soiñien jastesan lenengo erropie ixetesan. Da gero ganetik gonauntzek. Da gero gona aundixe... Gonauntzen gañetik pañelue kurtzau da gona gerrixen sartzesan.

IKEZGINTZA (Emeterio Bergaretxe -c-)

Basoan lenengo inbida sulue; lautada bat, larriñ moduko bat. Da gero sartzen die sortzi-amar bat olasi, autámañuen, bueltan ikestei suluen erdi erdixen. Da gero egurrek ifinten die bere kontrán. Lenengo autamañukuen, gero lodi-txuauek, da gero lodixauek bueltan.

Gero inbiera askoras laurendu. Da lendik datorren suluei lagundu inbijako goraño. Da gero beste ifiñialditxo bat egurrek; gero barrido beie bebai; da gero goixen irugarren tramarie, ifiñialdixe.

Gero asala lixu lixu ataraten da egur fiñekin. Da gero ifinten jako orbela edo soixe, da gero lurre ganien, lur fin fiñe, mokil masoas sertute. Da gero sue botatejako goitibera, goiko suloti. Or atalaike egun batzun aldie. Bada pago adarrekin eindako txondorra... 80 bat sakuko txondorra bada amabi egun bat egosten ein beittu.

Iketza erditi gora fuaten da eiten.

Denporie axetxue edo badau lenautxo eiten dau. Fuaten dau goixen mermauas barrenera. Egositén dauenien orduen dauko lan txarra. Ordureko gertau bida barrenien lur fresko apur bat edo iruri apurbat (iketx seici irúrixé esatejako). Da gero belakixe, kirtén luse bategas, gaiñeko autze beera jatxi biajako, poliki poliki.

Da gero beste berjeluse bateas a dana ikera erein. Da gero lurre bota, lur freskue bota, da gero barriro berjel bategas

matén zitzaion ehungileari. Gero etxera tela ekartzen zen, ehuna. Horrekin egiten ziren gero izerak. Eta egiten ziren kamixak. Kamixa soinean janzten zen lehen erropa izaten zen. Eta gero gainetik gonauntzak. Eta gero gona handia... Gonauntzen gainetik painelua kruzatu eta gona gerrian sartzen zen.

Lehenik eta behin, basoan egin behar da zuloa; lautada bat, larrin moduko bat. Da gero sartzen dire zortzi-hamar bat olazi, tamainu honetan, bueltan ikeztegi zuloaren erdi erdian. Da gero egurrak jartzen dira bere kontra. Lehenik tamainu honetan, gero loditxuagoak, eta gero lodiagoak bueltan.

Gero egin behar da askoraz laurendu. Eta lehendik datorren zuloari lagundu egin behar zaio goraino. Eta gero beste jarrialditxo bat egurrak; gero berriro behea ere bai; eta gero goian hirugarren tramara, jarrialdia.

Gero azala leun-leun ateratzen da egur finez. Eta gero jartzen zaio orbela edo soia, eta gero lurra gainean, lur fin-fina, mokil masoaz zertuta.

Eta gero sua botatzen zaio goitik behera, goiko sulotik.

Hor atera daiteke egun batzuren aldea. Pago adarrez egindako txondorra bada... 80 bat sakuko txondorra bada, hamabi egun bat egosten egin behar ditu.

Iketza erditik gora joaten da egiten. Egurraldia haizetsu edo badago lenagotxo egiten deu. Joaten deu goian mermauaz barrenera. Egosten dagoenean, orduan dauka lan txarra. Ordurako gertatu behar da barrenean lur fresko apur bat edo iruri apur bat (iketx xehea iruria esaten zaio). Eta gero belakia, kirtén luze batez, gaineko autza behera jatsi behar zaio, poliki-poliki. Eta gero beste berjel

pasau. Da gero goiko punteti asten jako iketza ataten. Egunero apurbat, iketza áta. Lenauko irixen burkarak sortzi saku.

luze batez hura dena ikara eragin. Da gero lurra bota, lur freskoa bota, eta gero herrero berjel batez pasatu. Eta gero goiko puntatik hasten zaio iketza ateratzen. Egunero apur bat, iketza atera. Aintzinako idien burkadak zortzi saku.

SINISKERIAK (Marina Padilla eta Iñaki Larrañaga)

b: Iños entzun esin da, txarto esatearren maldesiñuen bat: «tragáukoalas!», orreik gansok e...

a: Lenauko kontuek, está? Lenau entzuten sien olakuek; iketza artute juetesiela erromerixen neska elegantiek begikoik iñok bota es deixuen da... iketza poltxikuen artute...

Bai, lenau entzutesien. Lenau or beko etxien... aitejaune beti berandu etortesana kaletik; da elixondotik bera euen bidie erreka sulo baten, kalera urtetako; da erreka suluen an urteta ixotzen da ser sán esateotzen da: «Jose Manuel artu naixu» barrerau pasetako. Da artu dau ta besto bat ostera: «Jose Manuel, artú naixu», da pasetan pasetan akabau es... Da anakak eukela paissan formakuek...

Gero Oletan, beti gizonok urten tabernatika sekule partixarik es etxerako. Da kanposantu baten ifiñi dau kalabasa baten arpeixe diñdile, kandelie barruen dauela; da kanposantu ondolik pasau biarreben, itxurie, da ikusi euenien arimie sala, ta belauniko paseu ta kandelik itxungi arte...

b: Emen mutil bat pastore, beti basotik berandu. Ta pasetasan, Etxauen, etxe baten ondolik; da akordau jako gixonoi «estutu bat emon biotzat ba orrixei, aber goxau ibiltzen dan». Jantzi da ixeras, mutiloi urteotzo katiagas da...

b: Inoiz entzun izan da, txarto esateagatik maldizinoen bat: «tragauko al haiz!», horiek gansoak e...

a: Aintzinako kontuak, ezta? Aintzina entzuten ziren horrelakoak; iketza hartuta joaten zirela erromerian neska eleganteak begikorik inork bota ez ziezaien eta... iketza poltsikoan hartuta... Bai, aintzina entzuten ziren. Aintzina, hor beheko etxean... aitejauna beti berandu etortzen zen kaletik; eta elizondotik behera zegoen bidea erreka zulo batean, kalera irtetzeko; eta erreka zuloan han irtetzen omen zion, eta zer zen esaten zion eta: «Jose Manuel, har nazazu», da pasatzen pasatzen amaitu ez... Eta anak zituela ahateen formakoak...

Gero Olaetan, beti gizonok irten tabernatik eta inoiz partidarik ez etxerako. Eta kanposantu batean jarri du kalabasa aurpegia zintzilik, kandela barruan duela; eta kanposantu ondolik pasatu behar zuen, antza denez, eta ikusi zuenean arima zela, eta belauniko pasatu eta kandela itzali arte...

b: Hemen mutil bat pastore, beti basotik berandu. Eta pasatzen zen, Etxauen, etxe baten ondolik; eta bururatu zitzaion gizonari «izutu egin behar dut hori ba, ia goizago ibiltzen den». Jantzi zen izaraz, mutil horri irten zion katearekin eta...

ELEIXA KONTUAK (Marina Padilla eta Iñaki Larrañaga)

Ondrak: Ondrak; oiñ esta eitten ori; len iru egunien eittesien ondrak; mesie apartete eta kantu batzuk.

Ondrak: Ondrak; orain ezta egiten hori; lehen hiru egunetan egiten ziren ondrak; meza aparte eta kantu batzuk.

Olatak: Bai, olata mesie lenau eotesan domúsantu, está, da urrengo egunien ixetesan ariman egune; da orduen ixetesan olata mesie. Olatak erutejakon, illerrixe eotesien lenau..., sepulturak, da ifiñttesien trapuek, bakotxak bere illerrixe ifiñttesien.

Da an otesien kandelak ixotute; ilbarri-xen kandelasko; orduen parientiek kandelak eruten sittuen da gero domusantuetan be pariente sienak batzuk erutesittuen kandela aundixek.

Gero ariman egunien eittesan atzea funtziñue, kanposanture juen da eittesan, da orduen erutesien olatak, opillek. Opil batzu tie bixurtute eiñdde. Da gero bixen bitartien be batzuk errespontzue botaten etorten sien abariek mesea akabetasannien, da botate jakon, senbat txakurtzikiko paternosterra. Da gero askenien isten jakon txakurraundi bat amakasiendako. Batzuetan txakurtzikixen lekuen istesan olatie amakasiendako. Olatie batzeuen sestotxueas amakasiek.

Illerriak: Egotesien domusantuetako andixauek. Iguel doblie ifiñttesien egurrek. Sirixolak. Euren kandelatxuekin.

Mueble bat; atzekaldien manteloi asentetako, da gero ifiñttesan, illeriko trapue esatejakon mantillakiñdde bordaute; da gero ifiñttesien ilbarri eguenien lau bat kandelero ero... Kandelerruek, orreik metalesko kandelerruok. Illerrixe ixetesan egurreko tramankulu ori. Domusantuen kandelak ifiñttesien. Urte osuen eotesan.

Entierro baskaria: (a) Baskaixe bai; gastue galanta eittesan! Iguel 80 lagun juntetasien eta... Etxien eittesan; kaletarrak eittesittuen tabernatan; seoser ifiñttesan: ardidenporan, buskentzak eittesien da goisien be jentie atorrenien be buskentzak eta saldie emoten jatien. Da gero baskaixe be buskentzak emongo sien.

Olatak: Bai, olata meza lehen egoten zen Domusantu, ezta, eta hurrengo egunean izaten zen arimen eguna; eta orduan izaten zen olata meza. Olatak eramaten zitzaizkion, hilerriak egoten ziren lehen..., sepulturak, eta jartzen ziren trapuak, bakoitzak bere hilerriak jartzen ziren.

Eta han egoten ziren kandelak piztuta, hil berritan, kandela asko; orduan ahaidiek kandelak eramaten zituzten da gero Domusantuetan ere ahaide zirenak batzuk eramaten zituzten kandela handiak.

Gero arimen egunean egiten zen funtzioa, kanposantura joan eta egiten zen, eta orduan eramaten ziren olatak, opilak. Opil batzuk dira bihurrituta eginda. Eta gero, bitartean ere, batzuk responsusa botatzen etortzen ziren abadeak meza amaitzen zenean, eta botatzen zitzaion zenbat txakurtzikiko paternosterra. Eta gero azkenean uzten zitzaion txakurrandi bat serorarentzako. Batzutan txakurrandiaren tokian olata uzten zen serorarentzako. Olata batzen zuen serorak saskiaz.

Hilerriak: Egoten ziren Domusantuetako handiagoak. Agian doble jartzen ziren egurrak. Ziriolak. Beraien kandeledin.

Mueble bat; atzeko aldean mantel hori asentatzeko, da gero jartzen zen, hilerriko trapua esaten zitzaion mantilakin eta bordatuta; eta gero jartzen ziren hil berri zegoenean lau bat kandelerru edo...

Kandelerruak, horiek, metalezko kandelerruok.

Hilerria izaten zen egurrezko tramankulu hori. Domusantuan kandelak jartzen ziren. Urte osoan egoten zen.

Entierro baskaria: a: Baskaria bai; gastua galanta egiten zen! Agian 80 lagun biltzen ziren eta... Etxean egiten zen; kaletarrek egiten zituzten tabernetan; zerbait jartzen zen: ardi denboran, buskantzak egiten ziren eta goizean ere jentea zetorrenean ere buskantzak eta salda

(b) Lenau ille esan eruten eleixara oingo moruen. Etxien ifiñttsan atien da etortsean abarie. Jeneralien illdde urrengo egunien entierrue ixetesan da kanposantura eruen da gero eleixara.

Bederatzziurrenak: (a) Beatziurrune esatenjako baiñe etzan eitten. Len urrengo domusantuetan emotesan. Da orreik iru ondrtan be, jentiek asistiuteuenai emotejakon armosue, etxien; berakasopie eta gañien okela ero, da gañien kafie da kopie...

(b) Lenau entierrue lusie ixetesan, ordu bi ero iru... kantau ta kantau te...; mesape eotesien bosmesa edo... bi kantauek eta erresau bat edo... iru mesa.

ematen zitzaien. Eta gero bazkaria ere buzkantzak emango ziren.

b: Lenau, hila ez zen eramaten elizara orain bezala. Etxean jartzen zen atean eta etortzen zen abadea. Oro har, hil eta hurrengo egunean entierrua izaten zen eta kanposantura eraman eta gero elizara.

Bederatzziurrenak: *a: Bederatzziurrena esaten zaio baina ez zen egiten. Lehen hurrengo Domusantuetan ematen zen. Eta horiek hiru ondrtan ere, jenteak asistitzen zuenari ematen zitzaion gosaria, etxean; berakatz sopa eta gainean okela edo, eta gainean kafea eta kopa... Aintzina, hileta luzea izaten zen, ordu bi edo hiru... abestu eta abestu eta...; mezak ere egoten ziren bost meza edo... bi abestuak eta otoiztu bat edo... hiru meza.*

MUTIKO JOLASAK (Marina Padilla eta Iñaki Larrañaga)

Potxóloka eñ: Kanfkan batzukin da intxaurrekin behai... beste ser batzuk otesien, aretxan bola erredondo batzuk, arin ariñek, txontxak.

Potépoteka: Guk olgetan geu potépoteka; bat geratu eta bat ikusteuenien «pote pote fulano» esan da jon birreun ariñketan isentaute euen parájie ikuketan; berak lenau ikuketan baotzen bera geráketasan «libre» da a ikusi euen «págo». Pirue esatejakon isentaute eukena. Iguel iguel labílabike be; isena diferentie...

Kantókantoka: Guk besto bat eiten geun, kantókantoka; eleispie euen lau kantoi, da jarri lau kantoietan eta erdixen euenak arrapau bitzen lekue bestiei...

Abarketasarka: Lurrien jarrite, da abarketa bat jarten euen; da ibiltetan abarketie bueltaka belaunpetik da erdixen euenak a arrapau biaueuen. Da ara begire eguenien, da!, atzeti be sartadie abarketiekin...

Potxoloka egin: Kanika batzurekin eta intxaurrekin ere bai... beste zer batzuk egoten ziren, areitzaren bola biribil batzuk, arin-arinak, txontxak.

Potepoteka: Guk jolasten genuen potepoteka; bat geratu eta bat ikusten zuenean «pote pote fulano» esan eta joan behar izaten zuen arineketan izentatuta zuten parajea ikutzen; berak lehenago ikutzen bazion bera geratzen zen «libre», eta ikusi zuen hura «pago». Pirua esaten zitzaion izentatuta zeukatena. Berdin berdina da labilabika ere, izena desberdina... **Kantokantoka:** Guk beste bat egiten genuen, kantokantoka; elizpea zegoen lau kantoi, eta jarri lau kantoietan eta erdian zegoenak arrapatu behar zion lekua besteari...

Abarketasarka: Lurrean jarrita, eta abarketa bat jartzen zuten; eta ibiltzen zen abarketa bueltaka belaunpetik eta erdian zegoenak hura harrapatu behar zuen. Eta hara begira zegoenean, da!, atzetik ere zartada abarketarekin...

Txorimurtzilke: An ebiltzan kuadrillien bat arrapau da gero igerri inbitzen a nor san bera librétaiko.

Asákasaka: Arendako kanikie biesan; lau alde daukos asakasak esta, lenengo da asakas; bigarrena pones, gero tente jartzen da kulos da besteti karnes. Asakas uno, dos, tres... asta doze asakas; beste amabi pones... Kanikie goixen san artien asakas artubie san... Kanikie eskuti martxetabaotzun galdu.

Txorimurtzilka: Han zebiltzan lagun taldean bat harrapatu eta gero asmatu egin behar zion hura nor zen bera libratzeko.

Asakasaka: Jolas hartarako kanika behar izaten zen; lau alde dauzka asakasak ezta, lehenengo da asakas; bigarrena pones, gero tente jartzen da kulos eta bestea karnes. Asakas uno, dos, tres... asta doze asakas; beste hamabi pones... Kanika goian zen artean asakas hartu behar zen... Kanika eskutik ihes egiten bazizun galdu.

9. BIBLIOGRAFIA

- AURREKOETXEA, G., VIDEGAIN, X., 1993: "Euskal Herriko Hizkuntz Atlas. Galde-sorta", *Euskara*, XXXVIII, 3 (separata).
- BARAIAZARRA, L., 1985: *Markina-Xemeingo Euskara aztertzen*, Azkue Biblioteka, Bilbo (orri mekanografiatuak).
- EHHA, 1990a: *Lexikoa*, Aramaioko erantzun koadernoak, 1-4. atalak. Inkestagile eta transkribatzaile: Isaak Atutxa.
- EHHA, 1990b: *Morfologia, sintaxia eta fonetika*, Aramaioko erantzun koadernoak, 5. atala. Inkestagile eta transkribatzaile: Isaak Atutxa.
- ETXEBARRIA, J. Manu, 1991: *Zeberioko haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Ibaizabal, Zornotza.
- EUSKALTZAINDIA, 1987a: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I* (Eraskina).
- EUSKALTZAINDIA, 1987b: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-II*.
- EUSKO JAURLARITZA, 1989: *Soziolingüistikazko mapa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.
- GAMINDE, I., 1982: "Butroiko euskara", *Fontes Linguae Vasconum*, 40, 403-460 or.
- GAMINDE, I., 1984: *Aditza bizkaieraz. I-III. tomoak*, U.E.U. Iruñea.
- MITXELENA, L., 1976: *Fonética histórica vasca*, Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián.
- TXILLARDEGI, 1979: *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, San Sebastián.
- UEU, 1983: *Euskal dialektologiaren hastapenak*, Iruñea.
- URIBARREN, P., 1972: "Aramaiona'ko...", *Euskara*, XVII, 157-167 or.
- YRIZAR, P. de, 1981: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Tomo I y II, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

Isaak Atutxa Etxebarria